

Bertsoa, jana eta trikitia

Harri Jaia ospatu
zuten atzo ▶ 5



Lanbide anitzetako norbanako batzuk euskararen alde konprometitu dira

HELBURUAK ▶ Konpromisoak hartu, sarea sortu eta
oztopoak gainditzea dira Kontseiluaren helburuak ▶ 6



Konpromisoa hartu duten hainbat lagun eta Bai Euskarari taldeko kideak herenegun Ibarra. DANI GIBELALDE

TOLOSA ▶

Roberto Jauregi oroitzeko igeri probak

Hegatsekin ariko dira
bihar Igarondon ▶ 3

JOSU TXUEKA ▶ HISTORIALARIA

«Nafarroan izua lege bihartu zen 1936ko gerran»

EHUko irakasleak gerrari buruzko
hitzaldia eman zuen Leitzan ▶ 7



IRATXE ETXEBESTE

EDORTA AGIRRE MAULEON ▶ PRESO OHIA

«Presoa damutze bidean jartzen saiatu dira»

Gaur egingo diote Agirreri omenaldia
Triangulon eta afaria Oargin ▶ 2

**DENDA HAUEK
Tolosaldeko HITZAREN
LAGUNTZAILEAK DIRA**
Egin itzazu zure erosketak bertan

- Arri Oinetakoak
- eta Konponketak
- Desgaste
- Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpollin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaja Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpollin
- Enmarkazioak
- eta Opariak
- Milar Electro-
- Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzarriak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojutegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa
- denda

**HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARENKIN
%5*-eko**
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.
Martxoetik ekainera
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko.
Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

EDORTA AGIRRE MAULEON ▶ PRESO OHIA



IRATXE ETXEBESTE

«Notasunaz harro izaten irabazten da errespetua»

Hilaren 16an atera zen Edorta Agirre Langraitzetik; hamasei urte egin ditu kartzelan, eta horietako asko gaixorik

IRATXE ETXEBESTE

Hamasei urteren ostean ezberdin ikusten du herria. Kaleari belar usaina dariola dio, eta gogotik hartzen du eskuan zuhaitzetik zintzilika dagoen lorea. Porlanezko hormetatik nekez begizta daiteke naturaren edertasuna, pentsatu dut. Kanpoan da orain, aske. Eta orduko gauza bera du Edorta Agirrek buruan: Euskal Herriak ere askatasuna behar duela. Gaur egingo diote omenaldia Trianguloan 20:00etan, eta ondoren, afaria izango da Oargin.

Hamasei urte. Etxean zara berriro. Zer aldatu da herrian?

Orohar hobeto bizi da jendea, herria polita dago, euskara zabalduago dagoela uste dut...

Baina beste gauza asko berdin daude. Tortura, dispertsioa, preso kopurua... hori ez da aldatu. Lehengo baloreak politikak ziren; egungo kontsumo gizar-tearen indiferentzia itsusia da. **Gizartea loak hartuta dagoela esan nahi duzu?**

Egia esan ez dut astirik izan hori deskubritzeko. Baina badirudi egoera politean gaudela guztiari buelta emateko. Itxaropen handia dut herri honek bere bidea berreskuratzea lortuko duela egunen batean.

Egoera politikoak ematen du horretarako bidea?

Badira ezaugarri eta faktore batzuk. Nik uste irekiko direla leihu batzuk eta hortatik bideratu beharko direla orain arte lotan egon diren indar asko.

SAKABANAKETA

«Presoa isolatzen eta damutze bidean jartzen saiatu dira; senideen sufrimendua areagotzea baino ez dute lortu»

KARTZELAN

«Sendagileak baino gehiago kartzeleroak dira, eta gure aurkako militante bihurtzen dira arazo baten aurrean»

Zigor osoa beteta irten duzu azkenean kalera. Gaixotasunak eta zigorraren 3/4ak beteta izateak ez dizu balio izan. Espainiako legediaren arabera kalean behar nuke aspalditik, beste preso batzuke bezala. Baina ez dute haien legea ere betetzen. Haiek gerran daude gurekin. Gerra kamuflatu batean, nahi baduzu, baina gerran. Espainiako estatuak helburu bat du: Euskal Herriaren nortasuna ezabatzea. Euskaldunok oso molestoak gara euskal estatuan; espainolak izan behar dugu, eta hori lortu arte, mozorrotua, baina ez dute etsiko. Frantziarrek ere berdin.

Gaixotasunei nola egin diezu aurre espetxean?

Bizi baldintzak oso gogorak dira berez kartzelan; askotan, lagunak hiltzen ikusi ditugu. Medikuak ondo zaudela esaten badizu ez duzu sinesten; babes falta izugarria da. Sendagileak baino gehiago kartzeleroak dira gehienetan, eta kartzelero bat militante bihurtzen da arazo baten aurrean, gure aurkako militantea, ETAkoak garelako. ETAkoak edo euskaldunak; ez dute bereizten.

Tolosan manifestazio handiak egin ziren orain lau urte zure askatasuna eskatzeko.

Horregatik ekarri ninduten Langraitzera. Horregatik, eta larritasunagatik. Mobilizazioak behar-beharrezkoak dira.

Aldaketa nabaritu zenuen?

Presoentzat berdin dio Espainiakoan edo Euskal Herrikoan egon: erregimena bera da denetan. Baina senideentzat beste kontu bat da. Borroka honetan zurekin zarenen pentsatzen duzu zu bakarrik sartu zarelara, eta hori gezurra da; zure familia eta lagunak sartzen dituzu zurekin batera. Nik urteak ordaindu ditut; haiek ere bai.

Etxerat-ek garbi esan izan du ez dituztela senide presoak bakarrik utziko.

Eta presook hortik hartu du indarra kartzelan. Presoen eskubideen alde mundu eta kohesio bat sortu da, sentimen-

duz mugitzen dena. Euskal Herriaren aspalditik izan dira preso politikoak, eta sentimendu hori aspaldikoa da herri honetan; oso errotua dago preso politikoaren figura. Presoa isolatzen, eta, damutze bidean jartzen saiatu dira, baina horrekin gure senideen sufrimendua areagotzea baino ez dute lortu.

Kartzelan nola bizitu duzu hori?

Espainiako espetxe sistema preso arruntei begira egituratu dago: presoak onartu egin behar du gaizkilea dela, damuaren onarpen publikoa egin behar du, eta haien gomendioei esker ez duela errepikatuko, ona izango dela, eta hori aitortzen duzunean bideak irekitzen dira. Guk ez dugu gure burua gaizkiletzat hartzen, guk ez dugu onartzen okerrik egin dugunik; gure alde egin dugu borroka bat eta kito. Gainera, integratuta sentitzen gara. Orain, kalean, baieztatu egin dut hori jendearen aldetik.

Onik eman al dizu espetxealdiak?

Ezagutu ahal izan dudana jendea: entrega eta adore handikoa, oso jende baliotsua. Azalean genuen elkartasuna, herri-mina ere bai... Senideez gain, gu bizirik mantendu gaiturten jendea topatu dugu espetxean, eta nire andrea ere Kordoban ezagutu nuen.

Etorkizunerako, zer asmo?

Mundu berri baten atarian nago. Gauza asko deskubritu behar ditut, familiarekin egon, lagunekin... Eta hortaz busti, hor murgildu, eta gozatu horretaz. Lehenetsuna osasun kontua izango da. Zain daukat hepatitisaren kontrako tratamendua; hurrengo urtearen hasieran hasiko naiz. Lan kontua ere argitu nahi dut. Atxilotu aurretik paper lantegi batean egon nintzen lanean 14 urtez; ikusi behar bertan zer jarrera duten. Eta gero, batez ere, ea argia pizten den herri honentzat. Herri honi bidea eman behar zaio. **Baikorregi ez ote zauden...**

Ez dugu eskatzen gurea ez den zerbait. Ez dugu beste lurralde-etara gurea inposatzera joan nahi, aspalditik hemen bizi gara eta gurea mantendu nahi dugu. Bada ez da hori errespetatzen. Apustu handia egin genuen gure garaian, atera gara eta gauzak konpondu gabe daude, eskubideak errespetatu gabe, gazteak berrie ere espetxean sartzen ari direla... Defenditu zure nortasuna: gehiago ez zaio eskatzen zer esana duen jendeari. Lana besteok egingo dugu, baina, errespetatu egin behar gaituzte. Eta errespetua norberaren nortasunaz harro izaten irabazten da. Ez da amets utopikoa; borrodatearekin lor daiteke.

IKASTAROA ▶

Sorosle eta sorospen ikastaroa, DYA-rekin

Astelehenean hasiko da eta ekainaren 18a arte iraungo du; jende guztiari irekia da

L. MONTES

Gipuzkoako DYA-k sorosle eta sorospen ikastaroa antolatuko du ekainean Tolosan. Datorren astelehen arratsaldean hasiko dira saioak, eta jende guztiarentzat irekiak dira.

Hirukide-Jesuitinak ikastetxeen eskainiko dute ikastaroa, hilaren 31tik ekainaren 18a bitarte, 19:30etik 21:30era, astelehenean ostiralera.

Gipuzkoako DYAk ordezkariak azaldu dutenez, ikastaroa egiteko ez da beharrezkoa aurretik ezagupenik izatea. «Programak egunerokotasunean aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko du: bihotz eta birika susperketa, zauriak, hausdurak, erredurak... Oso ezagupen arruntak dira, baina laguntza asko eman dezakete».

Ikastaroa «era atseginean» erakusten dela gaineratu dute, halaber: «Oso modu eroso eta atseginean erakusten dira kontzeptuak, teoria eta praktika alderdiak ukituz».

Ikastaroa amaierako frogak gainditzien dituenak Gipuzkoako DYA-k eskaintzen duen Sorosle titulua jasoko du. Gainera, ikastaroa gainditzien dituenek Euskal Herriko Unibertsitateko bi kreditu baliokotzeko aukera izango dute.

Izen-emateak

Izena emateko azken egunak direla jakinarazi dute, era berean, Gipuzkoako DYA-koek. Interesa duenak edo ikastaroaren inguruko informazio gehiago jasoti nahi duenak 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu besterik ez du.

Matrikularen kostua —ikastaroko ezagupenak biltzen dituen txostena barne— 60 eurokoa da. «Ematen den heziketaren kalitatea bermatzearen», ikasle kopurua mugatua da; beraz, interesa duenak lehenbailehen izena eman dezala gomendatu dute DYAk antolatuzaileek.

HEGATS IGERIKETA ▶

Alebin mailako onenak Roberto Jauregiaren oroimenezkoan

II. Roberto Jauregi oroimenezkoa jokatu da bihar arratsaldean Igarondo igerilekuan; Igarondo Urpekoak taldeko hamar igerilari lehiatuko dira bertan



Igarondo Urpekoak taldeko igerilari bat, txapelketa batean. IGARONDO URPEKOAK

GERTUTIK ▶ ROBERTO JAUREGI

Kirolari, maisu eta lagun


Roberto Jauregi 1926ko abenduaren 11n jaio zen, Belauntzan. Gurasoak, nafarrak jatorriz, lanera etorri ziren eskualdera.

Txikitik Belauntzako eskolan ikasi zuen Jauregi. Eta hamasei urte zituenean Tolosako hainbat tailerretan lanean hasi zen. Baina lana kirolarekin bateratu zuen beti, eta laneko hastapen horietan ere kirol proba askotan hartu zuen parte.

Gipuzkoako kros txapelduna izan zen hamabost urtetan, eta Donostiako Real Sociedad elkartean sartu zen. Gero, Tolosa CFra itzuli zen: atletismoan, eskubaloian, saskibaloian, patin-gaineko hockey-an eta beste hainbat kiroletan aritu zen bertan.

Hogei urte zituenean lantokia utzi zuen, eta kirol hezkuntza hasi zen. Lehendabizi, Eskolapioen ikastetxean jardun zuen, eta ondoren Igarondo igerilekuan. Tolosako eta Tolosaldeko jende askori erakutsi zion igeri egiten.

Kirol monitore titulua atera zuen hainbat modalitatetan. Bitartean, atleten prestatzaile zen; eta Tolosa CFko taldeetako masajista lanetan hasi zen las-



Roberto Jauregi. JOSEBA URRERETABIZKAIA («ERRETRATUAK TOLOSA» LIBURUA)

tererra. Hirugarren adinekoie ere gimnastika klaseak eman zizkien.

1981etik, taldea sortu zenetik, Igarondo Urpekoen entrenatzaile, maisu eta lagun izan zen Jauregi.

Mendia, eskia eta eskalada ere gustuko zituen. Orokorrean, kirola zuen afizio eta ofizio.

Nazioartean lortu zituen garaipenengatik eta egindako lan guztiarengatik da oraindik ezaguna Roberto Jauregi. 2002. urteko urriaren 10ean hil zen, Tolosako herri krosaren bezperetan. Han jaso zuen kirolarien lehen omenaldia. Igarondokoek ere urtero izan nahi dute gogoan.

LEIRE MONTES

Hegats igeriketako alebin mailako onenak elkartuko ditu, bihar, Igarondo Urpekoak taldeak antolatutako II. Roberto Jauregiaren Oroimenezkoak. 16:00etan hasita eta ia 19:00ak arte, erakustaldi aparta izango da, Igarondo igerilekuan.

Valentziako, Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko igerilariak hartuko dute parte II. Roberto Jauregiaren Oroimenezkoan. Probaren antolatzaileen esanetan, «maila polita» eskainiko dute guztiak: «Alebin mailako igerilaririk onenak izango dira gurean. Mallorcakoak izan ezik, talderik esanguratsuenak etorriko dira topaketa honetara».

Guztira, hamalau eta hamasei urte bitarteko ehun bat igerilari lehiatuko dira Igarondon, eta horien artean izango dira Igarondo Urpekoak taldekoak ere. Hain zuzen ere, Mara Varelak, Eneritz Etxeberriak, Irati Larrañagak, Nere Karrerak, Uxue Garikanok, Marta Gaztaniagak, Maitane Tolosak, Maialen Rodriguezek, Yashira Navasek eta Maria Navasek ordezkatu dute etxeko taldea. «Gaztetxo hauek guztiak ilusio handia dute topaketarako, eta gogotsu irten dute igerilekura», diote antolatzaileek.

Lau probatan lehiatuko

dira igerilariak, mutilak alde batetik eta neskek bestetik. Lehendabizi, 100 metro eskafrandan ariko dira —ur azpitik—. Ondoren, 25 apnea modalitatean —largo bat ur azpitik arnasekin hartu gabe—. Gero, 400 metro goitik —tuboarekin—. Eta, azkenik, errelebotan hartuko dute parte —4x100, tuboarekin—.

Igarondokoek adierazitakoren arabera, sailkapena eta, ondorioz, sari-ematea, (tabla alemanaren bidez) egingo dute. Horrela, lehendabiziko neska eta mutila sarituko dute. Talderik onenari ere aipamen berezia egingo diote, era berean.

Roberto Jauregiaren sendiak, bestalde, diploma bana eman gogo die opari parte-hartzaile guztiei.

DEIALDIA ▶

HZk deitutako manifestaziorako autobusak

Herritarren Zerrendak bihar Bilbon deitutako manifestaziora joateko autobusak antolatuta dituzte eskualdean. Joan nahi duenak Tolosako Raku tabernan eman behar du izena. Autobusa Tolosako Triangulotik abiatuko da bihar, 16:00etan.

HEZKUNTZA ▶

Ikasturte amaierako jaia bihar Samaniegon

Bihar egingo dute ikasturte bukaerako jaia Samaniego ikastetxean. 12:00etan izango da ekitaldi nagusia; hau da, ikasle guztien emanaldia. Ondoren, gaztelu puzgarriak, bazkaria, musika eta txokolatada ere antolatu dituzte. Ekitaldi guztiak Uzturpe kirolegian izango dira.

ERLIJIOA ▶

Otoitzaldia Santa Marian eta meza nagusia Izaskunen

Otoitzaldia izango da bihar Santa Maria parrokian, 10:30etik 12:00etara, gaztelan. Ekainaren 5ean, berriz, euskaraz egingo dute, leku eta ordu berean. Etzi, bestalde, meza nagusia ospatuko dute Izaskunen, 11:00etan. Koroak eta orkestrak hartuko dute parte.

MUSIKA ▶

Artizar kamara orkestra, gaur, Musikarian

X. Musikariaren baitan, Artizar kamara orkestraren emanaldia izango da gaur entzungai, 20:00etan, Pablo Gorosabelen. Bihar, bestalde, herri musika tresnen topaketa hartuko du herriak.

ZESTA-PUNTA ▶

Tolosa-Donostia Herri arteko Txapelketan

Herri arteko zesta-punta Txapelketan, Tolosako taldeak Donostiakoaren aurka jokatuko du, bihar, 11:00etan, Karmelo Balda pilotalekuan.

VILLABONA-AIZTONGO ▶ GIZARTEA

Udalekuetan izena emateko eta begirale izateko epea zabalik

Villabonako eta Zizurkilgo udalek eta Aiztondoko Mankomunitateak ireki dituzte izena emateko zerrendak

GARAZI AZKUE

Udan sartzeko hilabete besterik falta ez den honetan, oporretako urte garaian zer egin pentsatzen hasi beharra dago. Ildo horretatik, herri askotako udalek hautatu dute haurrentzat udalekuen aukera. Udaleku hauen helburua, irteerak, jolasak eta bestelako jardueren bidez, haurrek oporretan ere euskaraz egitea da.

Villabona da herri horietako bat. Uztailearen 5etik 23ra izango dira udaleku irekiak; ekin-tza, lehenengo eskolaurretik LH-ko 4. maila bitarteko haurrei dago zuzenduta. Goizeko 9:30etik 13:00etara izango da. Izena emateko udaletxeko Euskara Zerbitzura joan beharko da, maiatzaren 31 bitarte dago horretarako epea.

30 euro ordaindu beharko dira aurrezki kutxetan: Kutxan, 2101 0072 78 00000681 22 zenbakian; eta Euskadiko Kutxan, 3035 0046 73 0460900005 zenbakian. Ondoren ordainagiria udaletxera eraman.

Aiztongo bailaran ere antolatutako udaleku irekiak, Larraul, Aduna eta Alkizako umeei zuzenduta. 1991 eta 99 urte bitartean jaiotako haurrentzat izango da. Ekainaren 21etik uztailearen 23ra arte, 9:30etik 13:30era. Izena emateko epea ekainaren 7an amaituko da.

Begirale hautaketa

Bestalde, udalekuetan lan egiteko begiraleak aukeratzeko deialdiak zabaldu dituzte udaleku. Villabonan, gaur bertan amaituko da izena emateko epea, baldintzen artean, euskara ondo jakitea eta 18 urte betetzeko izatea daude.

Zizurkilgo ere izango dira udaleku irekiak, ekainaren 28tik uztailearen 23ra bitarte. Begiraleak aukeratzeko deialdia egin dute, beraz. Zizurkilgo erroldatuta egon behar dute, 18 urte beteta eduki behar dituzte. Euskara ere ondo menperatu behar dute aurkezten direnek, eta azterketa teoriko-



Herri askotan izango dira udaleku irekiak. G. AZKUE

praktikoa egin beharko dute begirale izateko.

Horretaz gain, denbora libreko begirale eta zuzendari titulazio izatea, heziketarekin zerkusua duten ikasketak egitea, esperientzia, edota langabetu edo ikaslea izatea baloratuko da. Izena emateko epea ekainaren 8an amaituko da. Azterketa ekainaren 11n, arratsaldeko 18:30ean izango da Atxulondon.

ANOETA ▶ HEZKUNTZA



Anoetako Ikastolako talde bat supermerkatua tailerlean. G. AZKUE

Kontsumo tailer mugikorra ikasleentzat

Anoetako Herri Ikastolako gaztetxoek nola eta zer kontsumitu ikasi dute aste honetan

G. AZKUE

Zer jan behar den, zer nolako elikadurak kontsumitu behar diren, zer eta nola erosi behar den... hori guztia eta gehiago ikasi dute aste honetan Anoetako Herri Ikastolako ikasleek. Kontsumo tailer mugikorra joan da Anoetara. LHko ikasleak izan dira ikasgai berezi hauetan.

Ikasunitate hauetako bat, supermerkatua da; tailer honetan, ikasleek, erosketekin zerikusia duten guztia ikusi zuten. Lehenik eta behin, eli-

kagai gurpila azaldu zuen tailerreko arduradunak. Ondoren, ikasleek taldetan jarrita, menu orekatua prestatu zuten. Segidan, menu hori prestatzeko erosketan egin zituzten. Hala ere, arazoak izaten dira beti supermerkatuan, eta nola erreklamatu ere ikasi zuten gazteek.

Supermerkatuaz gain, etiketa tailerra eta segurtasun tailerra ere ikusi zituzten.

Irakasleen esanetan, «oso gustura» ibili dira ia aste gutxian zehar ikasleak tailer hauetan.

AIZTONGO ▶

Bilbora joateko autobusak antolatu dituzte

Larunbatean izango da Herriarren Zerrendak deitutako manifestazioa Bilbon. Hara joan nahi duen orok, autobusean joateko aukera izango du. Villabonatik aterako da bailarako biztanleentzat autobusa larunbatean. Izena emateko, 943 69 16 10 telefonora deitu beharko da. Autobusa, 16:00etan abiatuko da Olaederra kiroldegiaran ataritik, larunbatean bertan.

ANOETA ▶

Xake erakustaldia izango da bihar Anoetan

Bihar izango da, aurreko astean Iruran egin zuten moduan, xake erakustaldia Anoetan. 16:30etik 18:00etara ariko dira LH-tik aurrerako 40 ume inguru. Gaztetxoak, Anoetako Herri Ikastolan bilduko dira. Irurako saioa «arrakastatsua» izan zen bertako antolatzaileen esanetan. Erakustaldi honen baitan erabakiko dute hurrengo urterako tailerra eratu den edo ez.



Xake erakustaldia. O. ESKITXABEL

ASTEASU ▶

Takolo, Pirritx eta Porrotx bihar kiroldegian

Aiurri, Berri Aiztondoko hamabostekariak 10 urte bete ditu aurtan. Ospakizunekin jarraitzen dute, eta asteburu honetan haurrentzat saioa prestatu dute. Asteasuko kiroldegian eskainiko dute euren saioa Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek. 17:30ean elkartuko dira bailarako haurrak kiroldegian, Poxpolin Mari Sorgin ikusizuna ikusteko prest. Sarrera 5 eurokoa izango da.

ZIZURKIL ▶

Bihar izango da argentinarraren afaria Zimiteyuan

Pasa den asteburuan marokoar afaria prestatu zuten Maiatza Saltsanen baitan. Aste honetan argentinarraren txanda da. Argentinako espezialitateak dastatzeko aukera izango da: matahambres, Panpa argentinarrereko txorizo krioioloa, empanada Tucumanas, churrasco chimichurri eta tiramisua izango dira. Zimiteyuan izango da afaria, eta ondoren Tangoneon taldea.

Dia 
SUPERMERKATUA
OKABIO taberna
Industrialdea • LEITZA
Tel.: 948 51 07 31

www.tolosaldeko-hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Musika eta jana, Harri Jaiako osagai nagusiak

Bertsolariek herritarren irriak sortarazi zituzten bertsoekin eta txisteekin



Elkarteko mahai guztiak bete ziren hamaiketako garaian. HITZA



Bertsolariek eta trikitilariak alaitu zuten atzoko eguna. O. ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Jasokunde Egunetik hurrengo ostegunean ospatu ohi dute bedaiotarrek Harri Jaia.

Kontatzen denez, urte batean, sasoi hauetan, kazkabarra bota omen zuen; kalte handiak izan ziren. Uztak galdu zituzten baserriarrek eta etxeetan eta baserrietan ere hondamendi handiak izan ziren.

Gertaera horiek berriro errepikatu ez zitezen errogati-

bak egiten hasi omen ziren herriarrek. Hasieran, ekitaldiak meza eta ondoreneko prozesiora mugatzen ziren. Urteen poderioz, goizeko festa luzatzen joan da. Egun, esaterako, hamaiketakoarekin hasi eta afariarekin bukatzen da Harri Jaia: mahai inguruko jai giroan, elkartearen aterpean eta eguraldiari kasu handiegirik egin gabe ematen dute eguna bedaiotarrek. Horrela izan zen atzokoan ere.

Eguzkia eta musika

Goizean goizetik eguzkia izan zuten lagun atzokoan bedaiotarrek. Meza nagusiarekin eman zioten hasiera jaiari; ondoren, salda beroa, haragi eta txorizo egosia izan zuten dastagai, trikitilarien doinuak entzuten zituzten bitartean. Tolosako Udaleko ordezkaritza ere izan zuten; Andoni Imaz zinegotzia izan zen bertan.

Mañukorta eta Agirre ber-

tsolariek saio txoa eskaini zuten ondoren.

Bazkaltzeko mahaiak bete-bete eginda zeuden. Bapo jan eta edan ondoren, bertsolariek bigarren saioa eskaini zuten; ondoren, bertsoak utzi eta txisteak kontatu zituzten, bertakoen irriak sortaraziz.

Xabier eta Mikel trikitilarien doinuak entzuten afal ordurako gosea egin eta berriro mahaiaren bueltan bildu ziren bedaiotarrek.

KIROLA ▶

Ikaztegieta eta Altzoko pilotariak, Beasaingo txapelketako finalean

Alonso ikaztegieta eta Mendia beasaindarrak irabazi zuten

O. ESKITXABEL

Kadete mailan, nabarmena izan zen Beasaingo txapelketako finalean eskualdeko ordezkaritza.

Itzi Olano altzotarrak eta Xabat Ibarguren ikaztegieta-rrak Asier Alonso ikaztegieta-rraren eta Mendia beasaindarraren aurka jokatu zuten pasaden larunbatean, maiatzaren 22an, Beasaingo txapelketako finala.

Partida bizia joan zen; azkenean, Alonsok eta Mendiak eskuratu zuten txapela, partida 22-10 irabazi eta gero.



Finala jokatu zuten bikoteak eskuratutako sariek. HITZA

ALEGIA ▶

Musika Eskolari buruzko bilera, udaletxean

O. ESKITXABEL

Datorren 2004-2005 ikasturteari begira, Musika Eskola martxan jartzeko asmoa du Udalak; hori dela eta zerbitzu horren inguruko bilera informatiboa deitu dute gaurko. Bilkura, udaletxean izango da, 19:30etik aurrera. Eta bertan, besteak beste, matrikulazio epea zehaztuko dute.

Sortzekotan dagoen Musika Eskolan haurrek, gazteek zein adinekoek parte hartu ahal izango dute; hori dela eta, «herritar guztiak bilera gonbidatuta» daudela zehaztu dute udaletxetik.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaidea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun ebx: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, Iarriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
 Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GARRIAOK

▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Santa Maria, I., Nafarroa etorbidea, 2 (Tolosa). 65 46 10
Gimeno, A., Elbarren kalea, 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaidea. 687 41 00 22
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUA

Orexa. Orexako taberna alokatzen da. 943 68 20 29.

SALGAI

Altzariak. Gela eta egongelako altzariak salgai. Oso egoera onean. 626 84 76 26.

OPARIAK

Zakurra. Ardi zakur bat oparitzen da. Bost hilabetekoa. 948 51 03 48 (14:30etik aurrera).

BERROBI ▶

Herri Arteko Txapelketatik at geratu da Berrobi

Herri Arteko Pilota Txapelketaren itzuliko partidak jokatu zituzten ostiralean Berrobik eta Donostiak, herriko frontoiean. Txapelketatik at geratu da Berrobi. Hiru partidak galdu zituzten berrobitarrek: kadeteetan, jubenetan eta nagusietan (8-22, 9-22, 13-22). Joaneko partidetan bi partida irabazi zituen Donostiak, eta bat Berrobik. Berrobi ordezkatu zuten pilotariak Aratz Irazusta, Ion Otamendi, Unai Madina, Iratitz Ugarte-mendia, Julen Izagirre eta Iñigo Altuna izan ziren.

IBARRA ▶

Txiribitu taldeak ekitaldi berezia egingo du bihar

Txiribitu taldearen hamargarren urtemuga dela eta, ekitaldi berezia antolatu dute biharko. Haur guztientzat, altxorraren bila jolasa egingo dute herrian zehar. Horretarako, 17:00etan jarri dute hitzordua, San Bartolome plazan. Jolasa amaitu ondoren, txokolatada izango da denentzat plazan. Aurtengo kurtsuari amaiera emateko, eta uadako kanpamentuaren aurretik taldearen azken ekitaldia izango da.

BERASTEGI ▶

Itziar Oteizak hiru domina eskuratu ditu igeriketan

Itziar Oteiza 12 urteko herri-tarrak hiru domina eskuratu zituen asteburuan Legazpin Igeriketako Gipuzkoako Txapelketetan. Bi urrezko domin lortu zituen 100 eta 200 metroko bizkar estiloan, eta estiloetako 200 metroan, zilarra.

EUSKARA ▶

DANI GIBELALDE

Kontseiluak berriki abiatutako *Hizkuntza eskubideak denon konpromisoa* izeneko kanpaina aurrera eramaten ari da eskualdean Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldea.

Egitasmoak euskararen normalizazioa hiru esparrutan multzatea du helburu: esparru soziopolitikoan (euskarak jaso dituen erasoei aurre egiteko), esparru sozioekonomikoan (elkarrekin eta enpresak konpromisoak hartzeko) eta norbanakoen esparruan (konpromisoak hartzeraz bultzatzeko).

Norbanakoen konpromisoak bideratzeko, eta kanpainari hasiera emateko eskualdeko lanbide eta afizio desberdinetako lagun batzuegan jo du Bai Euskarari Akordioa Tolosaldean taldeak. Talde horretako ordezkariek agerraldia egin zuten herenegun Ibarra Kultur Etxean, konpromiso pertsonalak hartzeko prest agertu diren lagunetako hiru lagun: Mireia Roca, Iñaki Arratibel eta Amaia Agirre. Konpromiso errealak hartzeko bi fitxa bete behar dira, bat Kontseiluarentzat, bestea norberarentzat.

Norbanakoen esparruko lan ildoan helburuak hiru dira: eguneroko konpromisoez jabetu, sare bat sortu, eta betetzerakoan aurkitutako oztipoak azaldu, horiek gainditzeko.

Mireia Roca arkitektoa eta irakaslearen hitzetan «unibertsitateak euskararen aldeko plangintza batzuk martxan jarri arren, aurrez konpromisoa hartu zutenengatik ez balitz unibertsitatean ez litzateke horrelako giro euskalduna egon-

Euskararen aldeko konpromisoa hartu dute hainbat lagunek

Kontseiluak abian jarritako dinamika berriarekin bat egin dute eskualdeko lanbide desberdinetako norbanakoei



Konpromisoa hartu duten lagunetako hiru lagun, Bai Euskarari taldekoekin, herenegun Ibarra. D. GIBELALDE

go. Horretan jarraitu arren, bada garaia gauzak beste maila batera eramateko; konpromisoa garrantzitsua da».

Iñaki Arratibel medikuak euskararen normalizazioa atzematen du bere lanean; «kontsultan hitz egiten, gutxienez %95a euskaraz egiten dugu, baina txostenak egiterakoan euskarazkoa asko jaisten da. Itxaropentsua izanda ere, konpromisoak hor egon behar du. Profesionalekin gizarte-

muga bat jarri izan da, agian hizkuntza teknika zaila delako, baina horrek ez du arrazoi bat izan behar».

Amaia Agirrek «agian muga handirik ez duela izan» aipatu zuen, euskal filologia ikasi zuelako, lanean bertsoarekin lotutako programa batekin aritza-gatik... Bere ustez, «poztekoa da hori». Bertso eskolak ematerakoan, eta umeak erdaraz erantzutean, nekez, erdarara jotzeko arriskua daukagu».

ESKUALDEKOAK ▶

KONPROMISOA HARTUTA

Amaia Agirre. Bertsolaria.
Mireia Roca. Arkitektoa.
Iñaki Arratibel. Medikua.
Xabier Usabiaga. Kazetaria.
Anjel Alkain. Aktorea.
Ramon Garate. Medikua.
Garbiñe Biurrun. Epaila.
Kristina Urkola. Injeniarria.
Vega Perez. Prokuradorea.

LIZARTZA ▶ PRESOK

Agirrebarrenaren abokatuari falta bat jarri zioten astelehenean Parisen egindako epaiketan

Presoen eskaerari kasu eginez abokatuak salatik irten zen eta epaileak falta jarri zion

BULDAIN ▶

Buldain
INMOBILIARIA

Arnazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34
mug.: 649 47 66 15
e-mail:
jmbuldain@eresmas.com

Berrobi. Eraikitzen ari diren hiru azken etxe unifamiliar adosatua salgai daude. 160 m²-ko bizitza, garajea 50 m²-koa eta lorategia 40 m²-koa, 306.516,1 euro.

Gorriti. Eraikitzen ari den etxe unifamiliar salgai. 200 m²-ko etxebizitza, 40 m²-ko garajea eta 400 m²-ko lorategia, eguzkitsua eta komunikazio oso ona, 336.566,78 euro.

Leitza. Herriatik 10 km-tara, Leitzelarrean, borda eta txabola salgai, 8.500 m²-ko lur-eremuarekin. Eguzkitsua, bista ederrak, bidea, ura, eta lur eremuaren etxea eraiki

daiteke (borda eta txabola mantenduz) edo borda etxebizitza bihurtu. 90.151,81 euro.

Leitza. Hiru garage salgai.

Leitza. Aztieta etxean, prestatuta dagoen 40 m²-ko lokala alokatzen da. 360,60 euro/h.

Leitza. Etxe unifamiliar adosatua salgai, hiru urte dauzka, bizitzeko prest dago, altzariak eta guzti, Leitzelarrean bidean.

Leitza. Orain eraikitzen hasi behar den etxe bifamiliarra salgai, herri erdian, 80 m²-ko garajea, 160 m²-ko etxebizitza, eta lorategia 90 m²-koa.

ERREDAKZIOA

Parisko Auzitegi Korrekzionala astelehenean epaitu zituen Aitor Agirrebarrena lizartzatara eta Asier Arzalluz. Bi presoek ez zuten onartu Auzitegia eta tirabirak sortu ziren epaiketan. Gorabehera haien ondorioz, epaileak falta ezarri zion abokatuari, presoen eskariari kasu eginez salatik atera zelako.

Besteak beste, euskal herri-tarrak izanik ez dutela Parisko Auzitegia onartzen adierazi zu-

ten presoek idazki baten bidez, euskaraz. Irakurketari ekin ziotenean, auzitegioko lehendakariak isiltzeko agindu zien Arzalluzi eta Agirrebarrenari. Ondorioz, presoek frantsesez idatzitako orriak bota zituzten tirabirak sortu ziren epaiketan. Gorabehera haien ondorioz, epaileak falta ezarri zion abokatuari, presoen eskariari kasu eginez salatik atera zelako. Besteak beste, euskal herri-tarrak izanik ez dutela Parisko Auzitegia onartzen adierazi zu-

JOSU TXUEKA ▶ HISTORIALARIA



Josu Txueka hitzaldiko une batean. JAIONE ASTIBIA

«1936an Nafarroan izua lege bihurtu zen»

‘Navarra 1936. De la esperanza al terror’ liburuaren inguruan aritu zen Kultur Asteko egitarauaren barrenean

JAIONE ASTIBIA

Josu Txueka lerindarra da sortzez eta Donostian bizi da. EHUko irakaslea da lanbidez. 1936eko gerrateaz hitz egin dugu berarekin.

Badirudi berriz ere eguneko gai bilkatu dela 1936eko gerrate hura?

Bai, hala da. Badirudi gerrate hark eta haren ondorioz errepresaliatuak izan zirenek, hura eragin zuena hil eta handik 30 urte beranduago, omenak eta oroimenak jasoko dituztela. Baina gehienentzat berandu iritsiko da. Eta hau guztia gainera esan behar da, familiarren eta partikularren ekimenez eragindakoa izan dela.

Erakundeen aldetik eta ez da jarrerarik aldatu edo?

Ezin daiteke orokortu baina, adibidez garai hartako gertaeak eta ikerketak garaian, artxi-boetako arduradun frankok oztokoak jartzen dituzte oraindik orain eta gainera artxi-bobaino, asko, paper biltegiak dira esan daiteke, gehienentzai honen inguruko agiriak ez baitaude sailkatuta ere. Eta bestela, erre eta dasagertuarazitako paperak ere badira. Hori ikusita, ikerketak egiterakoan udal artxi-boetara jotzen dugu gehien bat eta ahoz aho transmititu den altxor hori jasotzera.

Jendeak lasai hitz egiten al du gai horretaz?

Oraindik orain batzuei kostatzen da egiten zaie. Baina jada lagun gutxi gelditzen dira bizirik. Kontutan hartu behar da ikaragarriko zigorra jasotakoak direla.

Altaffayllak argitaratu duen liburu horretan ia 3.000 heriotz azaltzen dira.

Bai, eta hori Nafarroan bakarrik. Ni bizi naizen alde horretan esaten dute ‘kontuz naparrekin!’, baina hori ez da horrela. Nafarroan izua lege bihurtu zen.

Zergatik diozu hori?

Nafarroan izan zen erresistentzia ekintza bakarrenetakoa Endarlatsako zubia botatzea izan zen. Ez zuten gehiagorako denborarik izan. Berehalakoan bete zituzten hemengo espetxe guztiak. Gerra aurrean herrietako ale batzuk egindako informeei esker, bazekiten herritar guztien ideologia zein zen, prestatuta zeuden, eta denak barrura sartu zituzten edo bertan hil.

Gorriak ikusi zituzten?

Bai, *gorriek* gorriak ikusi zituzten. Edo beren ustez ‘gorriak’ zirenak. Oraintsu Ezkabako San Kristobaleko ihesaren urteurrena izan da eta han elkar-tu ginen lagun batzuk. Zur eta lur gelditu nintzen, hango patioa ikustean. Ziegak, lurpean argia sartzeko zirkuitu tiki bat basterik ez zutela. Hunkigarria da.

ARESO ▶

Bihar albintea hautatzeko frogak dira

Egun erdiko lanaldia izanen duen albintea edo lan anitzetarako langilea hautatzeko, frogan lehendabiziko zatia eginen dute bihar udaletxean. Lehiaketara bost lagun dira aurkeztekoak, bi herrian bertakoak, baina denak ere zonaldekoak direlarik. Hauta frogak hurrengo ekainaren 5ean bukatuko dituzte.

LEITZA ▶

Gaur 20:00etan kontzentrazioa bidegurutzean

Gaur ostirala, iluntzeko 20:00etan kontzentrazioa burutuko da *Euskal presoak Euskal Herrira* lemapean, herriko kruzean, Lope-neko iturri aurrean. Eki-men hau, Euskal Herri osoan hilabeteko azken ostiraletarako Etxeratak egiten duen deialdiaren baitan kokatu behar da.

▶ EUSKARA

UEUko 2004ko ikastaroetarako diru laguntza

Euskara Zerbitzuak UEUn izena ematen duten Leitza, Areso, Goizueta eta Arano-ko ikasleak diruz lagunduko ditu, hala nahi izanez gero. Diru laguntza jaso ahal izateko, eskaerak ekainaren 30a baino lehen bideratu behar dira, Euskara Zerbitzuak Leitzako udaletxean duen bulegora, 948 510814 telefonora deituz edo leitzalde@euskalnet.net helbide elektronikoaren bidez. Diru laguntza, matrikula edota egoitza ordaintzeko izanen dute ikasleek, beti ere dagozkien ordainagiriak eta bata zein bestearen agiriak ere aurkeztuz gero. Egoitza eta matrikula ordaindu behar dituzten ikasleari gastuaren %80a emanen zaio, aldez matrikula bakarra ordaindu behar duenari, %60a. Diru laguntza hauek beti ere, apatu herrietako udalek aurrekontutan onartutako diru kopuruaren arabera izanen dira. Eskaerak hori gaintzen badute, eskaera guztien artean proportzionalki banatuko da.

LEITZA ▶ UDALA

Haurtzaindegiko gela mintzagai batzarrean

Gai zerrenda luzearen barrenean Iruko etxearen salmentaz ere eztabaidatuko da

J. ASTIBIA

Gaur gaueko 21:00etan udaletxean burutuko den batzarrean, haurtzaindegiko gela bat gehiago irekitzeaz ariko dira. Gauza da aurrematrikulazio epea ireki zenean gurasoek 27 haurren izenak eman zituztela eta kontuan izanik Leitzako haurtzaindegian 28rentzat dagoela lekua eta horietatik 14 jadanik erreserbatuta daudela aurreko ikasturtekoak direlako, haur berri horietatik 13 lekurik gabe gelditzeko arriskuan daudela.

Badirudi beste gela bat sortzeko haina haur badirela eta honek aurrekontuetan ere eragina izanen duenez, eztabaidarako puntu nagusienetakoa izanen da.

Iruko etxearen salmenta ere tratatuko da, Erleta eskola-ko obretarako diru laguntza eskaerarekin batera, besteak beste.

Hiru mozio

Guztira 19 puntu izanen dituzte eztabaidagai. Hauen artean zenbait herri lurren gainekoak eta lur trukaketarako proposamenak eta baita hiru mozio ere: hain zuzen ere haurtzaindegirekin lotuta 0-3 zirklo hezkuntzari buruzkoa bat, beste gure baliabideen eta lurra-aren antolamenduz eta, maiatzak 25ean bete zen urteurrena dela eta, bazterkeratik gabeko Udala aldarrikatu eta egoera horren salaketa egiten duen mozio-eskaria bestea.



‘Liño Putzu’-ren lanak

LEITZA ▶ Liño Putzu eho ziri lanzaleen elkarteak erakusteta jarria dauka udaletxean Kultur Astearen barrenean. Talde hau 1998. urtean sortu zen eta orduz geroztik, irailetik ekainera, astean hirutan biltzen dira eho zirikin aritzeko. Banaz beste 15 lagun elkartzen dira, adin tarte guztietakoak eta bakoitzak bere kasa egiten du lan. Beraien esanetan, «hasieran zaila da, baina behin oinarriko puntuak ikasita, geroz eta gehiago sartuz joaten da eta plantila koplexuagoak eta lan handiagoak hartzen hasten da». Puntilak egiteko oinarriak erabiltzen dituzte gida modura eta ezepeleko tutu horietan ahalik eta haririk egokiena bildu, «horrelako lanak hartuz gero materiale onarekin egin behar dira», eta elkarrekin bihurtuz eta haruntza eta honuntza erabiliz eskulan eder eta ikusgarriak egiten dituzte. Eho zirikin aritzen ikasi nahi duenak lasai asko egin omen dezake beraiengana joanez, gustura hartuko dutela diote eta ez dirudien arren, oso lasaigarria dela ere bai, inork beharrezan egonez gero. «Bizio bat da», diote. J. ASTIBIA

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belauntza. Bidarraien eta Nabarten, ekainaren 5 eta 6an egingo den piragua eta rafting irteerako izen-ematea ostiralean amaituko da. Izen-ematea, Kultur Etxean.

Ibarra. Igandean zikro-jatea izango da Izaskunen. Prezioa helduentzat 15, eta haurrentzat 7 eurokoa da. Txartelak salgai dira Atari, Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Izaskun taberna eta Izaskun jatebean.

Ikaztegieta. Odola ematea Kiroldegian 19:00etatik 21:00etara.

Leitza. Detraka animazio taldea 15:00etan eskolan.

Tolosa. Igandean egingo den Ibilaldirako autobusak antolatuta ditu Galtzaundiak Leioa-Sopelara. Izen-ematea: 19:00etatik 21:00etara, ostirala arte. Prezioa: 9 euro (bazkideek 6 euro).

Tolosa. Udak Musika Eskolan datorren ikastuterako aurrematikula egiteko epea zabaldu da maiatzaren 3tik 31ra. 10:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Ero-Ebxe elkarteak antolatuta, Betizu show-a izango da bihar Leidorren 17:00etan. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean.

Tolosa. Erregulartasun Non Stop proba abiatuko da 9:00etan plaza Zaharretik. Mila kilometro egingo dituzte Hegoaldeko lau probintzietan zehar. Ibilgailu Klasikoan X. Azokaren barruan.

ERAKUSKETAK

Alegia. Alejandro Gonzalez anoetarraren margoak aurkitzen dira ikusgai Jubilatu Elkartean; oleoak eta akrilikoak.

Tolosa. Uztailak 3a bitarte ikusgai dira Aranburun Faustino Aranzabalen margolanak.

Tolosa. Javier Soto ordizierra eta Jesus Lopez Zulueta beasaindarraren margolanak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Maribi Iparragirrek bere artelanak ditu Saikin tabernan.

Tolosa. Anjel Cuervo bidaiari eta abenturazale tolosarraren argazkiak ikusgai dira Aranburun ekainaren 12a bitarte. Asteartetik larunbatara dago zabalik.

Zizurkil. Sükrü Karakus margolari turkiarraren erakusketa Abulondo kultur etxean maiatzaren 30a arte.

HITZALDIAK

Albiztur. Errenta Aitorpenari buruzko hitzaldia eskainiko du Aitor Berasalduz. 20:00etan Kultur Etxean.

Ikaztegieta. Guraso eskola saioan, *Guraso ona edo guraso arduratsua? Guraso eta kitto!* hitzaldia izango da 15:00etan kiroldegian.

KIROLA

GAUR ▶

HITZA Txapelketa (benjamin)
▶ Irazusta-Benadre/
Antoñanzas-Azkarate.

▶ Urdangarin-Urdangarin/
Ander-Altuna .
▶ Eskudero-Jauregi/ Aizpuru-
Eizmendi.
▶ Artola-Eizmendi/Erdozia-
Pagola (Albiztur, 19:00etan)

Areto futbola.

▶ Zarautz-Trans.Lakunza (1.
maila, 20:15, Antoniano).
▶ Laskorain A-Zaldibi (1. maila,
20:45, Ilaramendi).

BIHAR ▶

HITZA Txapelketa (etorkizunekoak).

▶ Aspe-Otxotorena/Renobales-
Etxegarai.
▶ Onsaldo-Elizalde/Belloso-
Jauregi (Beotibar, 11:00etan)

HITZA Txapelketa (alebin).

▶ Senperena-Goitia/Iraola-
Zubeldia.
▶ Eizagirre-Manterola/
Irazustabarrena-Zabala.
▶ Galarraga-Egiguren/Azketa-
Muñoz.
▶ Urretabizkaia-Karasatorre/
Gaztañaga-Iratorza (Alegia,
16:00etan)

HITZA Txapelketa (infantil).

▶ Lujanbio-Eizagirre/Esnaola-
Esnaola.
▶ Urteaga-Oregi/Elola-
Dorronsoro.
▶ Gaztañaga-Aizpuru/Aldalor-
Otamendi.
▶ Iraola-Iraola/Barandiaran-
Oliveira (Aduna, 16:00etan)

Futbola.

▶ Tolosa-Urola (Goren maila,

16:30, Berazubi).
▶ Inburre-Arebabaleta B (1.
jubenil jaitsiera, 17:00, Elorri).

Areto futbola.

▶ Nazareth-Hegoalde
(Ohorezko maila, 18:30,
P.J.Maria Ruiz).
▶ Laskorain-R.Astrabuduko (1.
nazonala B, 18:30, Berazubi).
▶ Atun Avia-Usabal
sagardotegia (Autonomikoa,
18:00, Auzoeta).
▶ C.Converters-Sala F. Txanela
(1. maila, 18:30, Olaederra).
▶ Eskolapios-Aiete (2. maila A,
16:30, Eskolapioak)


MUSIKA

Leitza. Jeiki abesbatzaren kontzertua. Zineman 20:00etan.
Tolosa. Artizar orkestraren emanaldia 20:00etan Musika Eskolan. X. Musikaria astearren barruan. Bihar herri soinu tresnak goizean zehar.
Tolosa. Brigada Criminal eta Stupenda Jones taldeen kontzertua. 22:30ean Bonberenean.
Zizurkil. Iban Nikolai oiartzuarraren Didjeridu kontzertua Maiatza Saltsan egitarauan. 22:00etan Abulondo kultur etxean.

ZINEMA

Tolosa. Pedro Almodovarren *La mala educacion*. Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean. Bihar ere ordutegi berean.

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 192.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.500 ale.
Gai nagusia. Iran, Ekialdeko atek zabaltzen.
Beste gaiak. Babarrunaren ereitea, Tolosa Kup festa, Ibarako gazte festak, itxaropenaren telefonoa...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa 6, behea. tolosa
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 213.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Ikastolak 40 urte.
Beste gaiak. Loatzo musika eskola, Oporretan euskaraz, San Isidro, Amodiozko gutunen lehiaketa, herri kirolak Zizurkil goian San Isidro egunean, Guri kooperatiba...
Argitaratzailea. M.Larramendi bazkuna.
▶ Berria 47, 3. esk. Amasa-Villabona
▶ 943 30 07 32
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Ixiar Amondarain (Anoeta). Gaur 9 urte eta igandean Jaunartzea. Zorionak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Juan Beain. Iepa!!! Zorionak. Gorria ala urdina? Ondo pasa ebekoaren partetik.



URTE ASKOAN

Unai Aristeta (Leitza). Gaur 10 urte. Zorionak zure guraso eta anaiaren partetik.



URTE ASKOAN

David Artola Cabanillas (Amezketeta). Gaur 10 urte. Zorionak Ibarako aitonen partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
(Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!